

ESKULANA: NOLA EGIN KOMETA BAT

Beharrezkoa den materiala

Hari zuria

Zetazko papera

Guraizeak


Labana bat

Kola


Arinak diren bi makiltxo (banbu edo beste egur batekoak)

Kometa egiteko jarraibideak:

1. Bi makiltxoak luzera berdinekoak izan behar dira, pisuarengatik eror ez dadin. Laban zorrotz batekin moztuko ditugu (gurasoen laguntza eskatu ezazu hau egin ahal izateko). Makiltxoekin gurutzearen forma egingo dugu eta korapilo batzuekin gogor lotuko ditugu elkargunean.



2. Gurutzearen alde horizontalean geratzen den makiltxoaren alboetan, bi hari lotuko ditugu, erdigunetik distantzia berdinerara.



3. Orain bi hari zati hauek ondo lotu behar ditugu, triangelu aldeakide bat osatuz non erdigunetik distantzia jakin batetara dagoen. Korapilo horretatik aurrera hari txuri guztia lotzen dugu, non guztira bost metrotako luzera izango duen, eta honen bukaera izango da kometak hegan egin ahal izateko erabiliko duzun haria.

4. Zetazko papera jartzen diogu kometaren gainazal guztia betez, alboetan kolarekin itsatsiz.

IRAKURRI BAINO LEHEN

Arreta jarri ezazue izenburuan, marrazkietan eta testuaren egituran. Zer ikasiko duzue testu hau irakurtzerakoan?

Noizbait egin ahal duzue lanen bat jarraibide testu bat erabiliz?

IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

1. Zer bi zatitan banatzen da testu hau?
2. Kometa hau egin ahal izateko, laguntza behar izango duzuela uste al duzue?
3. Makiltxoak burdinazkoak izango balira zer gertatuko litzateke?
4. Zetazko paperaren ordeztu, zein beste material erabili genezake kometa egin ahal izateko?
5. Hariak, erdigunetik distantzia berdinerara lotuko ez bazenituzte, zuen ustez, zer gertatuko litzateke?
6. Bien artean zenbat denbora eman diezazueke kometa hau egiteak?
7. Zer pentsatzen duzue, geratuko litzatekeela, 4. urratsa, 3.a baino lehenago egingo bazenute?

EKINTZA OSAGARRIAK

Oraingoan errotatxoa egin ahal izateko jarraibide testua osatu beharko duzue. Ziur marrazki hauek lagungarri dituzuela, eta ez zaitezte behar izango diren materialez ahaztu.

